

## **EUSKAL DANTZA, 50 URTEKO HISTORIA** **LABURRA**

**IÑAKI IRIGOIEN**

Berrogeita hamar urteko historia hau idazteko esan zidatenean, konturatu nintzen, gutxi gora behera, dantza inguruan ibili naizen urteei buruz zela. Hori dela eta, neure inguruko historia laburra kontatzera ausartuko naiz. Gainera, esan behar dut, Goizaldi dantzari taldearekin zer ikusia ere izan duela hasieratik neure dantza inguru honek. Dindirrik, nik dantzatzen nuen Bilboko taldeak, eta Goizaldik sarri dantzatzen zuten jaialdi berberetan. Hala izan zen bai Donostian, bai Bilbon eta bai beste toki batzuetan ere.

Bilbon, fraile kaputxinoek zuten dantzari taldean hasi nintzen dantzak ikasten 1951. urtean, eliza inguruan orduko denporetan ohi zen bezala. Bizkaiko Ezpata-dantza zen batez ere ikasten genuena eta taldea oso txikia zen, zortzi-hamar mutikoz osatua. Ni hasi orduko, urte pare bat edo lehenago, nire anaia batek Dindirri taldean dantzatzen zuen, eta banuen talde honen berri. Anaia soldaduska egitera Donostiara joan zen, eta Dindirri taldera eraman ninduen. Honela izan nintzen Dindirriko dantzaria 1952. urtean. Hau Bilbon zegoen talderik onenatarikoa zen, eta dantza programa zabala zuen. Ordurako Euskal Herriko toki askotan ibilia zen, 1945. urtean sortu zelarik. Arrakasta handia izaten zuen bere emanaldietan. Euskal Herriko jendeak, diktaduraren urte ilun haietan, bere kulturaren egarri zela ikusten zen. Egia da euskal kultur usainik zuen beste gauza askorik ere ez zutela egiten uzten garai haietan.

Ni dantzan hasi orduko sortuak zeuden Goizaldi, Oldarra, Duguna, Txirinbil eta beste talde batzuk. Esan behar da talde hauen dantza programak ikuskizunari egokituak zirela gehien baten, dantzak multzo baten eskainiaz. Talde hauen artean Goizaldi zen -Gipuzkoako brokel dantzarekin- tradiziotik hurbilen zebilena, Kandido Pujanagandik ikasiak baizituzten, eta berau zen dantza hauen arduradun eta gordetzaile.

Dindirriko lehen maisuak, Juan Martin Pertika, Abandoko batzokian gerra aurrean izana, eta geroago Manu Otaño, gipuzkoarra bera eta Eresoinkan ibilia, izan ziren. Hauek bere denboran erabilitako dantza programak jarri zituzten taldean.

Bizkaiko Ezpata-dantza Euzko Alderdi Jeltzaleri esker oso hedatua izan zen toki askotan. Batzoki gehienetan irakasten zen, eta horretarako zerbait aldatua eskaintzen zen koreografia aldetik, errazago izan zedin. Bizkaian talde askoren artean egindako Ezpata-dantzak ematen ziren gerra aurrean. Honela, San Mames eta Ibaiondo futbol zelaian egindako alarde ikusgarriak sona handia zuten. Talde hauen artean arian-arian, Ezpata-dantza forma bat normalizatu zen. Jatorrizko herrietan, Durangaldean, koreografia zaharrea jarraitzen zuten bitartean.

Gerra aurrean, giro honetako dantza ikuskizunak ere sortu ziren. Saski-Naski, Oldargi, Elai-Alai eta abar ibili ziren dantzak aurkezteko forma berriak asmatzen. Gerra denboran Eresoinka eta Elai-Alaik ere ekin zioten lan honi atzerri aldean.

Dindirri taldearen lehen maisuak bide horretatik ekin zioten. Baita sortu ziren talde gehienak ere. Herri dantzak hartu eta ikuskizunari begira egokitutakoak ziren gehien baten egiten ziren dantzak.

Niretzat, urte hauetan Bilbon eman ziren ikuskizun bi oso garrantzitsuak izan ziren. Bata Biarritzeko Oldarrak Ayala antzokian egina eta bestea Duguna izenarekin Iruñean antolatutakoa, dantzariak bertako Udalekoak zirelarik, eta aipatutako antzoki berean emana. Geroztik Iruñeako udal-dantza taldea Duguna izenarekin ezagutu genuen beti.

Talde hauen programak antzoki baten emoteko ekoiztuak ziren. Bestetik, Dugunak kalean emoten zituen dantza asko ere elkarren artean nahastuta eta laburtuta eskaintzen ziren. Honela ziren Luzaideko eta Otsagiko dantzak, beste batzuren artean.

Nire lehen plazaratzea Urretxun izan zen. Gogoan dut baita ere, urte berean, Donostiako zezen plazan ere izan ginela, Euskal Herriko beste dantzari talde batzuekin, Goizaldi taldea tartean zela. Urte hauetan Duguna, Oldarra, Goizaldi, Txirinbil, Dindirri eta beste talde batzuen artean Euskal lurralde guztietako dantzen agerpenak sarri egiten ziren, batez ere Donostian, Iruñean, Bilbon eta Biarritz edo Donibane Lohizunen. Dantza jaialdi hauei *Zazpi-probintzietako Jaialdiak* deitzen genien, eta zer esanik ez zenbat sendotu ziren honekin Euskal Herriko dantzarien arteko hartu-emanak.

Talde hauetako dantzariak onak ziren, nahiko landuak, taldeak bezalaxe. Adibidez, ikustekoak ziren Goizaldiko Iñaki Gordejuelak edo Juan Mari

Montesek dantzatzen zituzten aureskuak, oso landuak eta ondo eginak, edo talde guztien teknika eta berdintasuna. Gogoan ditut oraindik Bilboko Euskalduna frontoian ikusita, benetan paregabeak, Goizaldik aurkeztu zituen Gipuzkoako dantzak. Gogoan dut baita ere Juan Mari Montes Bilboko Arenalean, urte batzuk geroago, aureskua eta Zuberoako dantzak berak bakarrik eginaz. Berdin gertatzen zen Duguna eta aipatutako beste taldeekin ere, bere probintziko dantzak egiterako orduan.

Landutako taldeak ziren eta ikuskizunetarako prestatutakoak ematen zituzten dantzak. Ez zuten jatorrizko herrietan egiten zirenekin parekotasun osorik, zerbait aldatua izaten zuten. Adibidez, Dindirrik dantzatzen zuen Arretxinagako Mikel Deunaren dantza Segundo Olaetak prestatutakoa zen, eta berak egina musika zati bat. Beste muturrean, Xemeingo herrian betiko bideari jarraitzen zion koreografiak.

Dindirrik, 1948. urtean dantzatutako programa bat dut aurrean, eta bertan, behin baino gehiagotan, *arreglo* hitza ageri da dantzaren ostean. Kontuan hartuta bertan agertzen diren Sagar dantza edo beste batzuk, *navarro* edo *vizcaino* hitza jarria dutela, *arregloak* ere zirelarik.

Bilbon, 1950. urtean Olaetatarrak dantza akademia bat jarri zuten eta ikuskizun bat prestatu behar zutela-eta, Dindirri taldera etorri ziren dantzari bila. Hara joan ziren taldeko dantzari asko, ni ere tartean, eta bertan ikasi genuen dantza teknika lantzen. Olaetarekin luzaroan jarraitu genuen. Hemen baleta lantzen zen. Olaetak ikuskizun ugari prestatu zituen, orkestrarekin dantzatzen zirenak eta antzokietan aurkeztuak. Ez zen herri dantzarik egiten, teatro-ekintza zuten ballet hutsa baizik, euskal musikariek sortutako soinuak erabiliz.

Akademia honetan dantza klasikoa ere egiten zen, eta esango nuke honetaz Bilbon lehena izan zela. Pilarin Muñoz zeritzon beste akademia bat ere bazegoen, baina ez zuten euskal dantzarik erakusten, batez ere flamenkoa zuten helburu. Gerra ostean, Bilbon gehien baten, dantza klasikoaren inguruan ibiliak Olaetarekin izanak ziren, hasikeran batez ere.

Denbora hauetako dantza taldeetan zegoen giroa hau zen. Dantzari onak baina herri dantzei buruz nahikoa gutxi zekitenak, batez ere tradizioz jatorrizko herrietan egiten zenaz. Orduan ez zegoen non ikasi ez ikusi ahal, orain diren erreztasunik ez zen-eta. Euskal kultura ez zen inon erakusten, gehiago egiten zen kontrakoa. Bestetik, baita ere, kontuan hartu behar da bidaiak egiteko ez

zegoela orain diren ibilgailuen ugaritasunik, batez ere taldeetan ibilten ginen dantzarien inguruan.

Halan eta guztiz ere, apurka-apurka, interesa genuenok, zerbait ikasten hasi ginen. 1950. hamarkada aurrera zihoala, gogoratzen dut oraindik nola konturatu ginen bilbotar dantzariak Berriz eta Durangaldean ere dantzatzen zela. Baita, Korputz egun baten, 1957. urtea zela uste dut, edo hurrengo gehienez, bakarrik, neure notak hartzeko koadernoarekin, Donostiarantz zihoan goizeko lehen trenera igo eta Oñatiko bidea hartu nuenean. Bai poza sentitu nuela heldu eta berehala dantzariak, Santuaren irudiari lagunduz, agertu zirenean eliza aurrera! Dantza inguruko beste mundu bat zela iruditu zitzaidan, eta benetan horrela zen. Tradizioz egindako dantza, egun konkretu baten egina, horretarako bakarrik prestatutako dantzariak, herriko ohitura zahar bati jarraituz, benetan beste gauza bat da dantza munduan. Ez du zerikusirik guk talde baten, nahasturik, jatorriz dantza ezberdinak direnak, betekizun ezberdinak dituztenak, ikuskizun baten ematearekin. Geroztik, euskal dantza inguruan, gehien atsegin izan ditudan uneak hauetariko tradiziozko dantzenak dira. Hala berezitu ditut ondo dantza inguru biak, ez baitute zentzu berdinek batak eta besteak.

Urte hauetan, Euskal dantzari buruz idatzita zegoena irakurten ahalegindu nintzen, Euskaltzindiak Bilbon zuen Azkueren bibliotekan batez ere. Euskal giro hartan, gerra aurrean idatzitako asko irakurri nuen, tartean frantsesez zegoen Zuberoako Maskaradei buruzko G. Herellen artikulu ederra. Frantsesez ez nenkien, eta Gabriel Arestiren laguntzarekin irakurri ahal izan nuen. Baita gazteleraz idatzita jarri ere. Berarekin Zuberoara joateko planak ere egin nituen, eta azkenez, ezin zuela-eta, bakarrik joan nintzen 1958. urtean. 1959ko Ihauterietan Luzaiden ere izan nintzen Dindirri taldeko lagun batekin. Honela herri handietako dantzariak konturatu ginen, oraindik, Euskal Herriak jarraitzen zuela bere dantza eta ohitura zaharrekin. Toki askotan mendeetako ohiturei jarraituz herri dantza bizi-bizirik zegoela.

Euskal herri dantzen mundua, diktadura denbora ilun haietan, gure belaunaldikoez, gure kabuz eta pausuz-pausu ezagutu beharra izan genuen. Gure lehenengo eskola lehen esandako dantza taldeen programetan zegoen. Gerra aurreko batzoki inguruko dantzetan eta Saski-Naski, Oldargi, Oldarra, Olaeta edo Duguna inguruan ikuskizunari begira zeuden emankizunetan oinarrituak ziren gure dantzak.

Esandakoen adibide gisa Goizaldiri Llangollen 1955. urtean jazotakoa aipatuko nuke. Ezpata dantza egin zuten eta oso ondo, baina zortzi ezpata txikidunak bakarrik. Eta epai mahaikoa zen Violet Alford jakintsuak, hirugarren saria eman eta gero, esan zien, saria hobetzeko “ikas itzazue ezpata-dantzako beste figurak”. Egunkarian Jose de Artetxek idatzi zuen artikulua bat eta, Violet Alfordek, erantzunez bidalitako artikuluan, honela argitu zuen sariaren zergatia: “Teknika dantza hutsa baino gehiago eskatzen dute epaile internazionalak Llangollenen. Helburua folklore dantzen tradizio jatorra bilatzea izan da beti” ... “Horrexegatik, epaimahaikoak dantza modernoekin, konposatuekin, eszenarako folklore dantza konponduekin edo-ta parte hartzaileen bere herrikoak ez diren epaia eman beharrean aurkitzen dira”. Violet Alfordek 1928ko Korputz Egunean Donostiako prozesioan Ezpata dantza ikusi baitzuen, hamasei dantzariekin, eta bazekien nola zen dantza hau bere osotasunean. Hori dela-eta, Goizaldik berriz irakurri beharra izan zuen Iztuetaren lana hurrengo urtean lehen saria jaso ahal izateko. Honela ohartu ziren nor zen Juan Inazio Iztueta.

Hirurogeiko hamarkadan beste talde berri asko sortu zen, hauen arteko dantza lehiaketak eta agerraldiak edo alardeak ugarituz. Folklore erakustaldia ezezik politika zentzua ere bazuten agerraldi hauek. Euskal Herri mailan Deban izan ziren sonatuenak, han batu baitziren 1965. urteko maiatzean, Txistulari aldizkariak agertzen duenez, 50.000 pertsona, bost tren berezi, 180 autobus eta 1.400 automobiletan joanak. Euskal folkloreak egun handia izan zen, dantzariak, abeslariak, soinulariak, denak baturik, anaia-arreba arteko egun handi baten. Diktadura momentu haietan egun ahantzezinak gertatu ziren orduko euskal gazteentzat. Mixel Labegerieren *Gu gira Euskadiko gaztedi berria* kantua nonahi entzuten zen. Agintariak laster ohartu ziren, ordea, eta Deban ez zen honelako egun gehiagorik izan.

Herri gehienetan dantzari taldeak sortu ziren, baina denak lehen aitatutako taldeen programa berdinekin, hauengandik hartzen baitzituzten ikasitako dantzak eta. Jazkeran ere ez zen gauza handirik landu. Dantzarien prestaketa zen garrantzizkoena, lehiaketak ere bide horretatik egiten ziren. Dantzarien gorputza lantzen zen eta ez taldearen jazkera edo dantzaren jatorria.

Urte hauetan dantza saioak ugariak izaten ziren, eta Euskal Herri osoa hartzen zuten jaialdiak ere jarraitzen zuten herri handietan. Eskuan dut 1967. urteko Donibane Lohizuneko jai programa. Dantza jai askoren artean, uda inguruan eginak, abuztuaren 6-an *Zazpi euskal probintzietako jai ikusgarria* agertzen da. Parte hartu zuten dantza taldeak: Gipuzkoatik Donostiako Goizaldi, Bizkaitik Bilboko Gaztedi, Nafarroaren izenean Iruñeako Udal

dantzari taldea, Nafarroa Behereko Zapurrak, Arabaren izenean Oñatiko dantzariak (honela dakar programak), Zuberoatik Maskarada eta Lapurdiren ordezkaria Donibaneko Begiraleak. Honelako programak, probintzia ezberdinetako dantzari taldeak elkaturik egindako ikuskizunak, herri ezberdinetan egiten ziren.

Hamarkada hau, batez ere erdi aldeko urteetan, oso garrantzitsua izan zen, gazteria pil-pilean zegoen, dantza talde asko eta jaialdiak ugariak eta jendez beteak. Indar hau folklorikeria hutsean geratuko ote zen beldurra agertzen hasi ziren, kritikak eginaz, toki ezberdinetatik. Bai politikan mugitzen hasiak ziren gazte askoren aldetik eta bai euskararen egoera bizkortu eta indartu behar zela esaten zutenen aldetik.

Ikusiko dugunez, dantzari taldeek erabiltzen zuten folklore programa aldetik ere sortu zen eztabaidarik. Emoten ziren dantzak eta jazkerak laburrak eta pobreak ziren, gehiago eskatzen zen. Zerbait aldatu beharra zegoen, dantza berriak sortu edo herrietan ikertze lanak eginaz dantza programak aberastu. Nire ustez, Euskal Herrian, une garrantzitsua izan zen kultura eta politika aldetik, eta nola ez dantzen aldetik. Arazo hauei aurre egiteko erantzun ezberdinak eman ziren.

Esan denez, taldeen arteko hartu-emanak sendotzen joan ziren, eta dantzarien arteko erakunde finko bat behar zela ikusten zen. Txistulariek aspalditik zuten beren erakundea eta aldizkaria. Dantzariak hau lortzeko batzarrak egin zituzten eta, legeztatzeko eskakizunak ere egin zitzaizkien diktadurako agintariei. Hau Hego Euskal Herrian talde gehiago zegoelako eta lan bikainagoa egin zitekeelako izan zen honela, baina ezetzak jaso ziren eskatu zen bakoitzean.

Erakunde honen estatutuak legeztatzeko, Francoren administrazioaren ezezko guzti hauek zirela-eta, frantses legetasun barruan, Iparraldean, hango agintariei eskatzea erabaki zen. Honela, inoren eragozpen barik, onartuak izan ziren eta frantses Estatuko boletín ofizialean onarpen hau 1965. martxoaren 10ean agertu zen *Eskual Dantzarien Biltzarra* izenarekin.

Honela, 1966ko maitazaren 14an, Miarritzeko Agilera stadiumean, lehen Dantzari Eguna ospatu zen, eta Euskal Herriko 2.000 dantzarik parte hartu zuen bertan. Honen hurrengo, kiroldegi bereko gela baten, lurralde guztietako ordezkariak bertan zirela ospatu zen lehen biltzarra. Bertan, behin behineko asmoarekin, lehen zuzendari junta eratu zen, gerora Hego Euskal Herriko lurraldeak batuko zituzten Federakundea eskatzeko asmoarekin.

Elkargo berri honen lehendakaria Paul Rocca-Serra Legarralde izan zen, eta Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko behin behineko ordezkari bezala, beste batzar orokor baten lurralde bakoitzekoak izendatzearen zain, Xabier Gereño.

Biltzarraren lehen helburuetariko bat dantza agerketa handi bat egitea izan zen, baita aldizkari berri bat sortzea ere. Hau, idearen bultzatzaile nagusia zen Xabier Gereñok zuzendua izan zen batez ere. Aldizkari honek, legez frantses erakunde baten agerbidea izanik, Bilbotik argitaratu, zuzendu eta kudeatua izanaren berezitasuna zuen. Gainera, artikulu gehienak gazteleraz agertzen ziren, batez ere Bizkaia eta Hegoalde inguruko taldeen kezkek erakutsiz.

Aldizkaria DANTZARI izenarekin agertu zen hiruhilebetekaria izateko asmotan, eta bere lehen alea 1966. urtekoa izan zen.

Ordurako beste pertsona batzuren kezka Euskal Ballet Nazionala sortzea ere izan zen, gerra denborako Eresoinka abes eta dantza taldearen emankizunak gogoan. Baina proposamen sakonen faltan idea honek ez zuen jarraitzaile askorik izan.

DANTZARI aldizkariak, hamabi ale arrunt eta aparteko batekin, dantza inguruko taldeen eta bultzatzaile bezala agertzen zirenen asmoak agertzen ditu batez ere. Egiten diren proposamen garrantzizkoenak orduko egoera hobetzera zuzenduak ziren. Egoera hau ez zen partaideen kopuru falta, baizik eta hauen eta dantza taldeen ekintzetan formazio eta kalitatea lantzearen hobekuntzari zegozkionak. Idazleren batek euskal folklorea krisialdian zegoela esaten du, baina krisialdi emankorra, hazkundera ekarri behar zuena zen hura.

Euskal dantza taldeen folklore izpiritua eta kezkek ukitzen dituen nahiko gai aurkitzen ditugu. Dantzaren orduko egoera eta etorkizuna aztertzen duten lanak egiten dira. Hauetan, gutxitan bada ere, gorde beharreko tradizio legez agertzen da folklorea, baina gehienetan, taldeek eskaini behar zituzten ikuskizunei buruz eginak dira. Ikuskizun onak egiteko profesionaltasuna behar dela ere esaten da.

*Yenka*, momentu hartan modan zegoen dantza, txistuarekin jo behar edo ez, eztabaidan jarri zen. Honekin, musika instrumentu tradizionalen egoera kritikoa analizatzen zen, azpimarratuz kontuan hartu behar ziren edo ez garai

sozial berriak. Dantza taldeen norabidea krisi baten murgildurik zegoen une garrantzizkoa zela esan daiteke.

Aldizkarietan idazten ziren lan gehienak didaktika zentzu bat dute, dantzarien portaerarekin arduraturik agertzen dira, hala nola euskal kulturaren arlo ezberdinetan duen prestakuntzaz, batez ere euskaran. Badaude, baita ere, lan interesgarri batzuk gure folkloreaken ikerketei zuzenduak.

Biltzarraren beste garrantzizko helburu bat, batez ere ikuspuntu teoriko batetik, *dantza barrien antolaketan lehiaketa* bat prestatzea izan zen. Aldizkariaren lehen zenbakian lehiaketa honen oinarriak jartzen dira.

Lehiaketa honen prestakuntzak garbi erakusten du zein zen antolatzaileek folkloreak zuten jarrera, hau da, hirietako taldeen ikuskizun bat bezala bakarrik ikustearena, alegia. Lehiaketaren oinarrietan agertzen denez, *herrialdeko dantzen zerrendari gaurko belaunaldiak bere inspirazioaren fruituak gehitu ahal diezaizkion* egina izan zen.

Saritutako dantzak jaialdi baten aurkeztuak izan ziren eta bere deskribapenak aparteko aldizkari baten argitaratuak. Aldizkari honetan berriro azpimarratzen da kreaioaren eta eboluzioaren behar izana eta *Euskal Herriak, gaur egun behar izan artistiko batzuk dituela gure garaiko kulturari aportatu behar dion heinean*. Hitz hauek garbi erakusten dute nahi zutena, baita nabarmen jarri ere jende askoren artean folkloreaki buruz zegoen konzeptua, batez ere Biltzarraren bultzatzaileen artean: ikuskizun huts bezala, ez tradizioa. Honela, folklore inguruan dagoen herri ritualak eta momentuak ez ei dute zentzurik. Oraindik ere, zoritxarrez, bada honela pentsatzen duenik.

Eragin honen egokitasuna onartzen ez zuten batzuk ere izan ziren, hauen artean Goizaldiko Jose Ignacio Montes Astigarraga. Honek, beste gauza askoren artean, pertsona batek eraikin bat egiten hasi orduko ezagupide zehatzak eta benetakoak izan behar dituela esaten zuen, “*Zoritxarrez gaur egun, talde gehienak, asko ugaritu direnak bestalde, Auñamendi alde bietan, gutxi gora bera, betiko lau dantzak egiten dituzte, oso triste da esatea ere, ez dira ‘sota, zaldia eta erregea’ baino*” azpimarratuz. Koreografia lardaskatuak egiten dituztenei kritika egiten die eta tradizio iturriei inguratzeko bideak seinalatzen ditu, lagunarteko aholkuak emanaz: “*Joan zaitezte gure dantza tradizionalek jatorria duten herrietara eta, benetako euskal koreologia ondorioaren maisu direnek esaten dutena, maitasunez ikasi*”. Honen ondorioz, batek nondik dabilen ikasi duenean, orduan bai egin daitezkeela koreografia berriak.



Euskal dantza berri-berriak sortzen hasi gabe, dantza tradizionalak, gutxi ezagutzen direnak eta erdi ahaztuak, ikertu eta hauekin taldeen programak aberastea esaten zutenak gehiago ere ziren. Hauen artean Juan Antonio Urbeltz dugu. Honek, 1967. urtean argitaratutako artikulu batean, dantza eta gizartean izan behar duen funtzioa aztertuz, espezialisten dantza tradizionalaren ikerketa defendatzen du: *“Herri bat honela eta ez beste era batera dantzatzeko eraman duten zergatiei heltzeko helburuarekin”*. Bere artikulua hau esanez amaitzen du: *“Dantza ezin daiteke ikerketa baten bakarrik gelditu, eta demonstratuak izan diren gauzei buruz dantzatzen jarraitu. Dantza lenguaia artistikoa oraingo gizakiarentzat denez, ulergarria izan behar du, nere ikuspuntutik, eta ez gaitazan engainatu, dantza tradizionala gero eta txikiago geratzen ari zaigun jantzi bat delako, eta uste dut, behar beharrezkoa dela irtenbide berriak bilatzea tradizioetik hasita”*. Esan behar da hitz hauekin garbi geratzen dela bere jarrera. Tradizioa jarraitzen ez duten dantza taldeek, azken baten, folklorea behar den bezala ikasi ondoren, ikuskizun eta sortze lanetan murgildu beharra dute. Honela, bide hau eraman du Juan Antonio Urbeltzek eta berak zuzentzen duen Argia taldeak, lehenengo urteetan dantzak osorik aurkeztu, aldakuntza minimo batekin, eta gero sintesiak eta kreazioak prestatu ikuskizunetan.

Halan eta guztiz ere, ikuspuntu hauek, momentu haietan kreazioa bultzatzen zutenen aldean, dantza taldeetan bizi zen krisiari irtenbide bat bilatzeko, beste soluzio batzuk eskaintzen zituzten. Azken baten, talde gehienetan bide hauek izan ziren hartu zirenak, dantza berri-berrien kreazioen jarraipenari jaramonik ez eginaz. Halan eta guztiz, gutxitan bada ere, erdi ahazturik zeuden batzuk birmoldatu egin ziren dantza taldeek eman zitzaizten. Bestetik, esan behar da, lehiaketa hartan moldatu ziren dantza berberak ere ez direla askotan aurkeztu jende aurrean, eta gaur egun ere erdi ahazturik jarraitzen dutela.

Jatorrizko herrietan dantza tradizionala ikertze bideak, talde batzutan, emanak ziren ordurako. Adibidez, Bilbon Gaztedi eta Dindirri taldeak, Bizkaiko dantzetan bere jatorri formak ikertu eta ezagutu ondoren aldaketa batzuk jarriak zituzten bere ikuskizunetan, honela Ezpata dantzan eta Arretxinagako Mikel Deunaren dantzan, baina Durangaldeko eta Xemeingo forma originala bere osotasunean hartu gabe. Gipuzkoan, Goizaldi taldea izan ezik (honek gipuzkoar dantzen forma zaharretan zintzo jarraitzen baitzuen), beste talde gehienak lehen esandako dantza *suiteekin* jarraitzen zuten, baita beste probintzietan ere.

Donostiako Argia taldea, Juan Antonio Urbeltz zuzendaritzara heldu zenean, ez ikertzen bakarrik baita dantzak bere osotasunean, ikuskizunetan aurkezten ere, errepikapen guztiakin eta pertsonaia eta koreografia osagarriekin, agertzen hasi zen. Otsagiko jaietan, 1966. irailean, ezagutu nuen Juan Antonio Urbeltz. Nafar herri honetara dantzak ikustera autobusez joana zen Argia taldea. Gu ere Dindirriko hiru dantzari helburu berarekin agertu ginen bertan. Donostiarrekin Goizaldiko Jaime Albillos ere han zen. Honek, urte haietan, dantza folklorikoak jatorrizko herrietan filmatzeari ekin zion.

Adierazi dugunez, aurreko dantza taldeen *suiteak* edo moldatutako dantzak aurkeztuari uztearen erabakia, batez ere, Argia taldearena izan zen. Talde honek antolatu zituen ikuskizunetan, dantzak bere osotasunean, herrietan ikerketa zehatza egin ondoren eginak ziren, oso landurik, detaile gehiagorekin ematen ziren jazkerak eta doinuak ere. Taldeak ikerketa arloan egindako lana ederra izan da eta, batez ere, dantzeekin moldatutako ikuskizunetan.

Garai honetan, dantzak jatorrizko herrietan ikasten jarraitzen zen, eta ikertzeak aurreko urteetan baino askoz ere garrantzi handiagoa izan zuen. Baita, esan behar da, behin baino gehiagotan, muntaia eta aldaketa berriak edo berrizatuak egiten direla, batez ere dantza ahazturik edo erdi galdurik zegoen herrietan.

Honen ondoren, dantza taldeetako ikuskizun programetan gehien nabarmentzen den gauza hauen aldaketa sakona da. Gehitzen direnak ez dira sortutako dantza berriak, ikasi ondoren berreskuratzen diren dantza tradizionalak baizik. Talde batzuk dantzen jatorrizko jaietara hurbiltzen hasten dira, hauek ikertzerak eta hauetatik ikaste asmoz. Bestetik esan behar da, lan hau egin ondoren aurkezpenerako muntaia egin duten taldeei ere beste barik kopiatu egiten dieten taldeak ere badirela.

Egoera honi esker, autoktonoak deituko ditugun taldeen dantzak, benetako folklorea betetzen dutenak, talde askoren ikuskizun programa berrien modeloak izatera pasatu ziren. Benetako folklore dantzak, tokia eta momentu zehatza behar du egiten denean, urtero errepikatzen dena. Gainera, herrian finkatutako errito baten zatia izanik honi jarraitu behar dio, bertan beharrezko elementu bezala pertsonai konkrituak parte harturik eta guzti hau arbasoengandik jasotako pausoekin osotutakoa.

Sortutako Dantzarien Biltzarraren historiari helduaz, esan behar da aldizkaria zela eginkizun garrantzitsuena, eta honen garapenean Gereño eta Bengoa Zubizarreta jaunena lanak nabarmentzen dira batez ere. Hiru urte igaro

ondoren, ikusirik ezin zuela lan honetan jarraitu, Gereño jaunak biltzarraren delegazio eta dantza inguruko jende guztiari deitu zion Bilboko San Anton elizara batzar batera. Batzar hartan Bilbo eta Donostiako taldeen ordezkariak izan ziren gehien baten. Eztabaida luze baten ondoren, aldizkaria aurrerantzean Gipuzkoan eramango zela erabaki zen, baita ere berriro ahaleginak egin behar zirela Espainiako estatuan Biltzarra legezatzeko. Gipuzkoarrek lanean hasiko zirela agindu zuten.

Hegoaldean Dantzari Biltzarraren lehen aro hau amaiturik, Gipuzkoako ordezkariak agindutako legezatzeko prozesuari ekin zion gogo betez. Une politiko hartan helburua aurrera eramateko beharrezkoa zen pertsona aproposak bilatzea. Euskal Herria eta bere kultura eta tradizioak maite behar zituzten, eta Madrilgo politikarientzako susmo txarrik ez izan. Honela bakarrik lortu zezaketen agindutako helburua

Biltzarraren estatutuak Espainiako estatuak 1969. azaroaren 29an baieztatu zituen. Euskal Dantzarien Biltzarra izenarekin onartu ziren, eta lortzeko, batez ere, Jesus Maria Arozamena jaunaren laguntza behar izan zen. Lehendakaria berau izendatu zen, eta berarekin, lehen batzordean jaun hauek izan ziren: Imanol Olaizola, Xabier Aranburu, Iñaki Beobide, Juan Antonio Urbeltz, Maria Elena Arizmendi, Antonio Valverde, Francisco Escudero eta Gaizka Barandiaran.

Franco bizi zen urteetan, politika arazoak zirela eta, gipuzkoarrak izan ziren batzordeko guztiak, ordezkariak izendatuz beste lurraldeetan. Biltzarrak Euskal Herri osoan egindako lanak nahiko murriztu ziren, garaia ere hortarako zen. Baina, nere iritziz, garrantzia hartuko zuten gauza batzuk egin ziren.

Momentu hartako kezkei erantzuten ziona izan zen lehenetariko bat. Biltzar berriaren Lehendakariaren inizatibari jarraituz, eta Gipuzkoako Diputazioaren babespean I. Nazioarteko Folklore Jardunaldiak, antolatu ziren 1971. urtean. Zarauzko dantzarien biltzarraren lehen asanbladan, lehendakariak esandakoen arabera eginak, *“folklore adituek gure dantzak aztertu eta geroko jokaeretako baliagarriak izan zitezkeen oinarri sendoak marka zituzaten”*. Jardunaldi hauetan Nazioarteko folklorista puntakoenetarikoak izan ziren. Honela, Erresuma Batuko Lucille Armstrong, Bulgariako Katzarova anderea, Israelgo Gurit Kadman, Suizako Madame Cherbuliez, Tyroleko Horac jauna eta anderea eta Julio Caro Baroja. Hauekin batera Euskal Herriko jendea ere izan zen: Gaizka Barandiaran, Juan Antonio Urbeltz, Iñaki Urtizberea, Iñaki Irigoien, Joaquin Jimenez eta Francisco Arraras.

Parte hartzaile nahiko arrakastatsua izan zuten jardunaldiek, dantza talde askotako kide batzuen artean dantza gaiari buruz zegoen interesa azalduz. Honela, han esandakoarekin hasiak ziren ikertze bide berrien finkatze prozesuak indar gehiago hartu zuten.

Jardunaldi gehiago ere izan ziren, hirugarrenak 1976. urtean. Hauetan ere atzerritik etorritako jakintsuak izan ziren, hitzaldiak eta mintegiak tartekatu zirela. Gogoan dut Julio Caro Baroja jaun agurgarriak eman zuen mintegia. Momentu hartako kezkak azaltzen ditu eta sortutako helburuei jarraituz, gure dantza tradizionalei eman behar zitzaien bidea urratzeko balio izan zuten. Batez ere, benetako folkloreak zaindu behar zuen premiari buruz hitz egin zen, hala nola kultur zati honen ikertze eta dokumentatzeari, lehendik egin barik zegoen-eta. Denboraz dantzak izan zitzakeen aldaketak eta ikuskizunetan izan behar zuten zintzotasuna, aldaketak izanez gero ikusleek, ikusten zutenari buruz, aurretik ohartarazita egon beharra azpimarratu zen. Behin ondo batuta eta finkatuta zeudenean, ezagutza hobe batekin, orduan izan zitekeen ikuskizun garatuagoak eta osoagoak egiteko momentua. Hauek izan ziren ikusitako bide zuzenenak eta azken baten talde gehienak hartutakoak.

Urte haietako gauza bat gogoratzera nator, bizi zen unearen lekuko hau ere, neretzat oso hunkigarria izan zena. 1973ko maitzaren 25ean gertatu zen. Egun hartan, Goizaldi taldeko XXV. urtemuga zela eta, Jose Inazio Montes-Astigarraga zuzendari ahantzezinak eskatuta, orduan Iurretak zuen ezpata dantzari talde bikainarekin batera, hitzaldi-dantza agerketa polit bat egin genuen Donostiako Udaletxean dagoen batzartoki nagusian. Parte hartu genuen hizlari-dantzariantzat oso interesgarria izan zen Durangaldeko dantza ezberdinak hitzaldi batekin ilustratzea. Gero, beste toki batzuetan errepikatu genuen emankizun bera, Durangon eta Elgoibarren. Donostian egin ziren hitzaldi-dantzaldiei Goizaldik emandako moldeak, une haietan dantza talde askok bizi zuten momentuaren lekukotasuna zen. Dantza talde autoktonoak egiten zituzten dantza ezberdinak ondo ezagutu eta beraietan sakontzea zen asmoa.

Bestetik, Biltzarraren ekintzek bide zaharretatik ere ibiltzen jarraitu zuten. Prestatutako ekintzarik garrantzizkoena 1970eko abuztuan Zarautzen egindako biltzar orokorra eta Dantzari Eguna izan ziren. Hegoaldean garai honetan egindako lehena. Honen ostean beste batzuk ere izan ziren, Gasteiz, Donostia eta Donibane Lohizunen egindakoak, Euskal Herriko lurralde guztietatik etorritako dantzariekin. Gipuzkoak eta Bizkaiak bidali zuten

dantzari kopururik handiena. Azken lurralde honetan ezin izan zen biltzar edo ekintza orokorrik egin, horretarako baimenik ez baizen lortu. Nafarroan ere ez zen gauza handirik egin, hango talde gehienek ez zuten parte hartzen-eta.

Argitaratutako aldizkariak ekonomia arazo handiekin jasotzen ditu elkartearen ekintzen berriak. Komunikabide honek DANTZARIAK du izena eta urte batzuen buruan zazpi ale agertu ziren. Aurreko DANTZARIren ordezko bezala agertu zen, burukrazia arazoak zirela-eta, ezin baitzitzaion izen bera jarri. Albisteak eta talde ezberdinen historiarekin dantza folklorikoen deskribapenak eta hauen azterketa kritikoak ditu batez ere bere orrialdetan.

Folklore autoktonoa eredu bezala hartzen den aroa da, eta honen ikertze eta batzeari ematen zaio garrantzia handiena. Hemen hasten da premia handiko ekintza bat, tajuzko baliabiderik eta jarraipenik ez izateagatik beharrezko tokiraino eramanez ez dena. Azken baten, talde askok egindako lanari ez zaio azkenik eman, behar zen zehaztasun eta kalidadea, folklor eginkizunen batzea eta transkripzio egiterakoan, bai idatziz edo ikus-entzuteko elementuen bidez, ez duelako izan. Ez eta toki konkreto baten gorde denak erabili ahal izateko. Hala eta guztiz ere, norabide aldaketa hau oso onuragarria izan da gure folklor aberastasuna askoz hobeto ezagutzeko orduan.

Urte batzuk geroago, Franco hildakoan, Hegoaldeko lurraldeetan askatasun gehiago da, eta honi esker gauzak zerbait aldatzen dira. Aro berri bat hasten da dantzarien biltzarrean, azpiegitura zabalagoa moldatzen da, Euskal Herri osoko ordezkariak mahai baten inguruan batuz eta hauen parte hartze zuzen eta zabalagoa izanik. Honen hasierako eredu zirrargarria 1978. urtean Iruñean egindako Dantzari Egun ederra izan zen. Azpimarratuko nuke une honetan lortzen dela lurralde guztien parte hartzea Euskal Dantzarien Biltzarrean. Honela agertzen da, aldizkarietan ematen diren berrietan, lurralde bakoitzeko ekintzak jartzen direnean.

Ospatzen hasi ziren dantza jai orokor hauek izan duten garrantzia ikuskizun horretarako taldeen arteko dantza prestaketa izan da. Lurralde bakoitzak eman behar zituen dantzak aukeratzen ditu, eta taldeentzat egokitutako ikastaldiak antolatu. Horretarako eskatzen bazuten, lurralde ezberdinen arteko taldeetan ere irakatsiak izan ziren. Eredu honekin hasi ziren dantzak zabaltzen taldeen artean. Azpimarratzekoa da, Lizarrako Larrain dantzak geroztik izan duen hedadura Euskal Herri guztian zehar. Honela, talde gehien artean egindako lanari esker ikuskizun orokor ederrak eta dantzen ezagutza handiagoa lortu dira.

Geroztik Biltzarrean federatutako taldeak parte hartuz, Euskal lurralde guztietako dantzariak izanik bertan, agerpen orokor hauek gaur egunera arte jarraitu dute. Orokorrean, lehenengoetan erabili ziren molde berdintsuak erabili dira, dantza tradizionalak aurkeztu, aurretik partehartzailei erakutsiaz, eta honela dantza taldeek bere repertorium zabalago bat izatea lortu dute.

Bestetik, azpimarratu behar den puntua lehenengo aldizkariari emandako jarraipenarena da. Zortzigarren aletik hasita, aurreko zazpiak epealdi zaharrean eginak baitziren, berrogeita hamabira heldu dira. Hauei aparteko beste hiru gehitu behar zaizkie, hauetako bat Txistulari elkartearekin batera argitaratutakoa.

Aro honetako lehen aldizkarian ezagutarazten dira Federakundearen helburuak. Honela, *“gure dantzak eta folklorea zaintzea dela. Ikerpen on bat egin eta erdi hilda diren herrietan berriro dantzak zuzpertz, urte askotan iraun dezaten. Jatorriz dantzatzuten duten taldeek indartu, bere dantzak ikasi eta, diren bezala, denon artean zabaltzea izan behar dute, batez ere, gure helburuak. Asmo honekin ‘Dantzari Egunak’ ez du egun ximple bat izan behar, urteko lanaren burukatze eta agerpena baizik”*, esaten da. Honela *“gure dantzak eta ohiturak ezagunagoak izango dira Euskal Herrian”*.

Hasierako aldizkarietan folklore egutegi bat agertzen da, irakurleek herritar dantza tradizionalak noiz eta non egiten diren jakin dezaten. Dantzen deskribapenak eta historiak dute lehentasuna aldizkari hauetan, dantza soinuekin batera. Esan dezakegu emaitza ederra izan dela urte hauetan eman duena, baina ez nahi izan den bestekoa oraindik ere, lan handia baitago egiteko.

Herri dantzei buruzko bideoak argitaratu, jantziak atondu, argazkiak atera eta beste gauza asko ere egin izan dira, honekin erakusketa eta hitzaldi argigarriak bete ahal izateko ikus-entzule eta dantzarien ikasgarri izan daitezen, Federakundearen beste helburu bat izan da.

Aipatutako tradizioaren bilketa etnografia ikuspuntu batetik egin izan da. Dantza taldeentzat, dantzari autoktonoek gorde dituzten ereduak, hau da, folklore tradizionala denaren ezaguera handiagotu eta zabaltzea izan du Biltzarrak helburu. Bestetik, esan beharra dago ez duela sartzerik izan nahi taldeen dantza kreazioetan eta moldaketan, edo hauen aurkezte era edo ikuskizunetan. Talde bakoitzak bere helburu eta bizitza du. Biltzarraren iritziz

hauei dantzak aurkezterakoan zintzotasunez jokatzeari bakarrik eskatu behar zaie.

Helburu hauei jarraituz, benetan lan bikaina egin du Euskal Dantzarien Biltzarrak, honela, urte batzutan, orain berrogeita hamar urte baino herri dantza ezagutza askoz ere zabalagoa eta zuzenagoa daukate dantza talde gehienek. Honekin, beharrezkoa zen pausu garrantzitsu bat eman da, hau da taldeek inolaz ere ahaztu behar ez dutena. Eta ez dantzari dagokionez soilik, baita jazkerari, soinu-tresnei, eta inguruei, eta hauek ikuskizunetan aurkezteko erari ere.

Hala eta guztiz ere, esan beharrean gaude, geure folkloreaken bilketa eta dibulgazio lana amaitu barik dagoela, inoiz amaitzen bada. Lan gehiago egin beharrean gaude, dantzen aniztasun guztiak batzen dituen atlas oso eta zabal bat sortu, denak kontuan harturik, eta soportea ezberdinetan detaileak finkatu. Lan hau ziklikoki egin beharko litzateke, tartean-tartean bilketa berriro eginez denborarekin izan ditzakeen aldakuntza edo eboluzioak hobeto ikusi ahal izateko. Lan hauek sailkatu eta gorde egin behar dira, eta inork behar dituen gauzak prest izan kalitatezko soportean emateko.

Lan hau egiteko beharrezkoa dugu erakundeen parte hartzea, langile ondo prestatuak eta tresna garestiak behar direlako, eta denbora. Diru asko azken baten. Urteak aurrera, diru aurrekontuak erabiltzen dituzten agintariak, behar den heinean, ez dute honelako gune orokor bat antolatu. Bestetik, gabezia handiak daude inori nahiko laguntasunik emateko orduan kultura tradizionala batu eta zabaltzeko.

Bestetik, esan behar da, hutsune batzuk izan arren, dantza folklorikoa duten jai tradizionalak indarberri egin direla toki askotan. Jarraituko duten itxura dute, herri konkretu batzutan izan ezik, eta hauek ere, duten garrantzia kanpotik ematen ez zaielako eta laguntasun faltan daudelako. Herri asko, erdi ahaztutako dantzak ere hasi dira egiten, eta beste batzuk berreskuratu dituzte berriro urte askotan egin gabe izandakoak. Honen adibide gurek, esate baterako, Begoñan, Andra Mari egunean, Bilboko alkateak presiditutako Aurrekua. Antzeko zerbait gertatu da Gipuzkoako herri askotan ere. Nire ustez, toki askok euren berezitasunen kontzientzia handiagoa dute eta ahaleginak egiten dituzte hauek mantentzen eta erakusten bere ingurune tradizionalan. Azken baten, Irunen San Marzial eguneko Alardean gertatzen ari dena, parte hartzen ez zuten herri zati batek, bertan aktiboki izateko eskakizuna da. Bertan andrazkoak izatea tradizionala izan edo ez izan, hauei

utzi edo ez utzi parte hartzen, azken baten eskakizuna jende gehiagori zabaltzeko asmoarekin egina da, eta ez, ohitura ahazturik bertan behera uztekoarekin. Bizirik dagoenaren arazoa da, besterik ez. Euskal Herriko beste toki batzuk beharko lukete lehia hori, dantzak egiteari utzi baino!

Esan beharrean gaude egindako dibulgazioa, batez ere dantzen historia eta ezagutza teorikoen aldetik, dantzarien artean gehien baten, handia izan arren, ez duela behar besteko fruiturik eman. Pausuak gogotsuago ikasi dira dantzen ingurua baino.

Aipatutako mundu biak ondo bereizten baditugu, bere sasoi eta tokian tradizioz egindako folklorea eta hau oinarri harturik beste batzuk antolatutako ikuskizunak, bigarren mundu honetan aldakuntza batzuk nabari daitezke azken urteetan. Batez ere talde batzuk agertzen dituzten dantza programei dagokienez. Lehengo dantza tradizional osoak, errepikapen guztiekin egindakoetatik, hauek zerbait aldatuz erakustaldiak muntatzera pasatu dira. Orain urte asko egindakoen erara.

Hirurogeita hamargarren hamarkadatik hasita, lehen esan dugunez, dantzak forma koreografiko tradizionalen aurkeztea izan zen talde hauen ikuskizunen helburua. Talde autoktonoak ere, euren herritik kanpo, erakustaldi batzuetan agertzen dira, Basaurin oraindik egiten den bezala. Honela zen hiri handietako taldeetan, eta asmo honi jarraituz, antzokietako ikuskizunetan dantzak bere osotasunean aurkeztea izan zen hauen helburua ere. Honela, Zuberoako Maskarada oso bat, jatorriz plazan egiten dena, antzoki baten aurkeztua izan zen. Egiten zen dantza ikerketa eta batzeak eramaten ditu taldeak bide honetatik. Ikertze lan honetan, esan dugunez, Argia dantzari taldea, bere zuzendaria Juan Antonio Urbeltz buru zelarik, azpimarratu behar den taldeetariko bat da, berak argitaratutako liburu eta artikuluekin batera.

Argia taldekoek, hasieratik esan dute bere dantza ikertzearen azken helburua hauekin ikuskizunak muntatzea dela, eta hau da azken baten egin dutena. Muntaia eta ikuskizun aurkezpen hauek, duintasun handiekin eginak, noizbait dantza egoera berriak sortuz eta moldatuz ere, ikuskizuna helburu duten dantza talde batzuetan nahiko eragina izan dute, eta hala dute gaur egun ere. Azkotan, Argia taldeak egindako muntaia literalki errepikatu dute talde hauek.



Bestetik, esango genuke, ez duela eragin handirik izan tradizioz gordetako dantzetan, hau da, aitatutako folklore autoktonoa duten herrietan, ohitutako momentu eta tokietan egina.

Honela, urteak aurrera, dantzak aurkezteko modua zerbait aldatu da. Folklore osoa eta garbia zena, apurka-apurka, taula edo antzokietarako moldatuagoa agertzen da. Argia taldearen ikuskizunekin jarraituz, 1986. urtean, beste talde batzuekin lan horretarako elkartzuz, *Irrakada* deitzen duen ikuskizun bat prestatzen dute. Emankizunaren egitarauan agertzen diren dantza batzuren koreografia egilea aurkitzen dugu, kasu honetan J.A. Urbeltz.

Antzoki ikuskizunetara dantza egokitze asmoari jarraituz, hauetan tradizioz egindakoei aldakuntzak sartuz, talde berak, 1988. urtean, Eusko Jaurlaritzaren babes eta laguntzarekin, Canfolensen (Frantzia), Euskal dantzen sintesia aurkezten du, *Zortziko* izena ematen diolarik ikuskizunari. Geroztik Euskal Herriko areto ezberdinetan emana izan zen. Ikuskizun honekin, zuzendaria den Juan Antonio Urbeltzek esaten duenez, euskal dantzaren munduan urrats berriak ematen ditu. Bere ustez lan handia egin da gauzak berpizten baina gero ez da sakondu, eta hau da egin behar duena aurrerantzean. Lortzen dituen emanaldiak nahiko ederrak dira, ia berrogei urte lehenago egiten zirenak baino hornituagoak, bai dantzetan eta bai jazkeretan. Hurrengo ikuskizuna, 1992. urtean aurkeztua, *Alakiketan* du izena, eta egilearen asmoa euskal dantzen eszenatokietarako berkreazioak egitea da.

Urte hauetan beste talde batzuk ere batzen dira dantza ikuskizunak emateko, honela Bizkaian *Artazi* izenekin egindakoa, non dantzak, asko aldatu barik, laburtu eta atondu egiten diren teatorako. Biarritzeko Oldarrak ere *Nafarroa* izena duen ikuskizuna prestatzen du, eta baita beste talde batzuk prestatzen dituzte bereak.

Jokabide berri hauek, berriro dakarte sormen berrien arazo zaharra dantza ikuskizun mundu honetara. Honen adibide bat, orain gutxi, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrak Ustaritzen antolatutako mahai ingurua, dantza sorkuntza eztabaidan jartzeko. Gehiago, Euskal Dantzarien Biltzarrak Hendaian antolatutako azken Dantzari Egunaren egitarauan dantza berriekin osatutako emanaldi bat egin zen, azken urteetan izan ohi den talde autoktonoen emanaldia baztertuz.

Eusko Jaurlaritzak ere, azken urtean, helburu berri honei eman dio lehenetasuna. Honela dantza koreografia berrien sorkuntza bultzaten ari da,

horretarako laguntasunak eskainiz, hala nola hauen ekoizpena eta gira artistikoak, horretarako dantza klasikoa, modernoa eta folklorikoa sartuz. Garbi dago ikuskizunak dituela buruan eta ez folklorea.

Gaur egun dantza talde batzuek ematen ari diren aldakuntzak kontuan harturik, oso garrantzizkoa iruditen zait ondo zehaztea eta bereiztea tradizioari lotutako dantza, folklorea azken baten, eta hauekin antolatutako ikuskizuna. Bata eta bestea, ingurune eta helburu ezberdinetan eginak, jende eta talde askorentzat gauza bera dela uste izatera eraman dezake, ikuskizuna alde batetik eta benetako folklorea bestetik ondo bereiztu barik.

Esango nuke, aspalditik mundu biak batera bizi direla elkarren ondoan, bai ohitura zaharrei eta bai dantza tradizionalak oinarri hartzen dituzten ikuskizunei lotua. Industria gizarte berri hauetan sortuak batez ere azken hauek. Honela, gaur egun, mundu biak dute beren betebaherra, berez, bakoitzak bere tokian eta momentuan, dantzen denbora, gunea, ingurune sozial eta helburu ezberdinak dituzte-eta. Bata eta bestearen beharizanak ere ezberdinak dira, eta bakoitzak bere laguntasuna behar du.

Herri dantza zaharrak, beste helburu barik, ikasi eta praktikatzen dituzten pertsona eta taldeek ere beren tokia dute, zer esanik ez, dantza hauekin jai giroetan erabilten dituztenean.

Puntu hauek Eusko Jaurlaritzak, gaur egun, kontuan ez dituela hartu uste dut, batez ere zer sostengatu eta subentzionatu nahi duen ikusita, hau da, ikuskizun dantzak sortu eta talde batzuen gira artistikoak bultzatzea eta ez ohiko agerpen tradizional eta herritarrak laguntzea, hauek modu zuzen eta egoki baten iraun dezaten. Azken baten, urte asko igaro ondoren, oraindik ere, ze urrun dagoen gure ondare kulturala zaindu ahal izateko beharrezkoa dugun tradizioen dokumentazio zentru ofiziala!

Amaitzeko, Goizaldi, donostiar talde paregabea, berrogeita hamarkadako lehen urteetan dantzan hasi nintzenean hain zirrara ahaztezina utzi zidan taldeari buruz hitz batzuk esatera noa. Dantzari talde honek, bere bidaia luze honetan, dantza ikuskizun ederrak aurkeztu duena izan bada ere, orain berrogei eta hamar urte direla, Kandido Pujanagandik harturiko Juan Ignazio Iztuetak Gipuzkoan utzitako legatu ederra bere garbitasun osoan gorde du. Geroztik, Goizaldiko dantzariak dantza hauen maisuak izan dira, eta handik ikasi dute gainontzeko talde guztiak. Hau dela eta, merezimendu osoz, dantza tradizioak gorde dituzten beste herrietako taldeekin batera, autoktonoak deitzen

ditugunak, hauekin antolatutako jaialdietan parte hartu izan dute behin baino gehiagotan. Hauetariko jaialdi bat, azken hogeitabost urte jarraian, nahiko arrakastaz, Basauriko herriak antolatzen duena da.

Euskal Herriko dantza munduan Goizaldik eginiko lana ez da izan dantza hauek mantentzea bakarrik. Donostian folklore tradizionala deitzen ditugun ekintzetan partaide izatea ere zor zaio. Honela Konstituzio plazan San Juan egunean egindako Aureskua edo Korputz egunean, hiriko prozesioan parte hartuz, Eleiza-nagusian, Santisimoaren aurrean dantzatutako Ezpata-dantza ederra. Ekintza hauek batez ere, Donostiako folklore tradizioaren gordetzaile izateak, Goizaldi taldea goresten dute. Ohi dituzten ikuskizun ederrak alde batera utzi gabe, espero dut bide hauek jarraituko dituztela aurrerantzean ere, Euskal Herriko folklorearen ondare aberatsak zutik jarrai dezan.